

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 2019-EKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den urriaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; kontu orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoaren (GUFÉ) eta Enpresa Sektore Publikoa (ESP) osatzen duten hogeitau erakundearen kontuek osatzen dute.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du kasu guztietarako, salbuespenik gabe.

2019ko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du BFaren 2019ko abenduaren 31ko finantza egoera aurreko ekitaldikoaren parekoa dela. Azpimarratu du 2019an BFaren eskubide kitatuak eta obligazio likidoak behin betiko aurrekontuaren % 99,5 eta % 98,9 izan zirela, hurrenez hurren, eta horrek ekitaldiaren emaitza 50,6 milioi euro izatea ekarri duela. AFaren zorpetzeak 94,1 milioi euro egin du behera, 2018ko datuekin alderatuta.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak** bete direla adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena BFAk Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzari Independenteari igorri zien eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak, bai GUFÉk eta bai ESP osatzen duten entitateek ere **zuzentasunez bete dute** ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz unean uneko ez-betetzeak azaleratu diren Langileen eta Kontratazioaren atalean; izan ere, **Langileen** alorrean, BFAko eta GUFÉko langileen berariazko osagarria handitu da, horren izaera eraldatuz; **Kontratazioaren** atalean, berriz, ESPko 3 erakundetan 870 milioi euroren erosketak egin dira publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe; ESPko 2 entitatek esleitutako kontratuaren aurreikusitako kopurua gaintu da dagokion aldaketa onartu gabe; eta BFAk eta ESPko beste 6 entitatek esleitutako kontratuak luzatu dira, mugaeguna gaintuta.